



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2019KO ABENDUAREN 27an OSPATUTAKO EZ-
OHIZKO BILKURAREN AKTA**

2019ko abenduaren 27an, Larraulgo Udaletxean, eguerdiko 12.00etan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Maite Arana Perez

ZINEGOTZIAK :

Aitor Beistegui Fiallegas
Vicente Garcia Momblona
Mireia Ruiz Delgado
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Jesus Maria Tejada Cantero

Bere ezin etorria azaltzen du: Maialen Alonso Labandibar

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:


- 1. 3/2019 Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada/Aprobación inicial del expediente de modificación de créditos 3/2019.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

3/2019 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.210.161.00.01 2019	AZPIEGITURA GASTUAK: UR SAREA	1.000,00	4.300,00	5.300,00
1 0000.210.163.00.01 2019	AZPIE ETA OND.GAST.KALE ETA BIDE GARB.	2.620,00	500,00	3.120,00
1 0000.220.920.00.01 2019	BULEGO MATERIALA ETA MANTENIM.	2.500,00	942,00	3.442,00
1 0000.227.153.40.07 2019	AZTERK.ETA AHOL.ZERBIT: PREBENTZIOA.BRI	500,00	4,48	504,48




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1 0000.227.920.00.07 2019	AHOLKUL:AZTERK.,LAN TEKNIK..DIPUT.	700,00	100,00	800,00
1 0000.231.912.00.01 2019	GOI-KARGUEN DIETA,LOKOMOZIO,...	17.000,00	700,00	17.700,00
1 0000.421.162.30.01 2019	TOLOS.MANKOMUNITATEA.HON D.TRATAM.	150,00	800,00	950,00
1 0000.422.334.00.03 2019	BESTE ENTITATEEI EKARP: HARITUZ BERTSO	660,00	48,00	708,00
1 0000.685.933.00.01 2019	INBERTSIOAK: HERRI OSTATUKO MOBILIARIOA	3.700,00	4.200,00	7.900,00
1 0000.221.161.00.02 2019	UR HORNIDURA	20.000,00	5.510,00	25.510,00
1 0000.422.335.00.01 2019	BESTE ENTIT.EKARP.GALTZAUNDI. EUSKARALDI	0,00	78,00	78,00
1 0000.227.341.00.04 2019	KIROL GASTUAK	1.900,00	100,00	2.000,00
1 0000.422.920.00.01 2019	BESTE ENTIT.EKARP.TOLOMENDI. IKT	1.900,00	68,00	1.968,00
1 0000.643.336.00.01 2019	INDUSKETAK	500,00	2.350,00	2.850,00
1 0000.224.920.00.01 2019	ASEGURU PRIMAK.	3.000,00	387,67	3.387,67
1 0000.222.920.00.05 2019	KOMUNIKAZIO INFORMATIKOAK	8.100,00	16,00	8.116,00
1 0000.227.323.00.01 2019	GARBIKETA ZERBITZUA. ESKOLA	6.500,00	204,00	6.704,00
GUZTIRA		70.730,00	20.308,15	91.038,15

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2019	GERAKINAK	20.308,15



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

FINANTZAKETA GUZTIRA			20.308,15

BIGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behinbetikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

HIRUGARRENA: Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:


KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA

2019ko Aurrekontuaren 3. Kreditu Aldaketako espedientea kontuan hartuta, Udal honek ez du betetzen 2019ko aurrekontuen egonkortasuna eta gastu araua. Beraz, Udal hau behartuta legoke, beraz, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2019rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

Eta argi eta garbi ikusten da Kreditu Aldaketako espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari andreak bilkura eguerdiko 12.05 orduetan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

